

# Apeninoen hegoaldeko, Siziliako eta ekialdeko Adriatikoko hariztia

# 2.3.6

## Robledal del sur de los Apeninos, Sicilia y el Adriático oriental



*Quercus virgiliana*, *Quercus congesta* eta *Quercus pubescens* espezieen baso misto muinotar eta menditar italiar eta balkaniarrak, hego Italian, Sizilian eta Adriatikoko eta Balkanetako kostaldean banatzen direnak.

Altuera txiki eta ertaineko basoak dira, hiruzpalau geruzakoak, eta goiko zuhaitz-geruzan nagusi *Quercus virgiliana* eta *Quercus congesta* badira, behekoan *Quercus pubescens*, *Fraxinus ornus* eta *Carpinus orientalis* azaltzen dira. Horrela, espezie bakarreko nagusitasun argia dago edo formazio mistoak sortzen dira.

Zuhaixka-geruzan banaketa zabaleko eta banaketa mugatuagoko espezieak hazi ohi dira, espezie mediterraneo hostoiraunkorrekin batera. Belar-geruzan banaketa zabaleko espezie termofilo ugari izaten dira, eta espezie biogeografikoki bereizgarriak eta hainbat espezie mesofilo ere barne hartzen dira.

Azpimarratzekoak, halaber, lianek eta gorakariak honelako basoari ematen dioten nortasuna eta bertan duten egitekoa.

*Bosques mixtos italo-balcánicos colinos y montanos de Quercus virgiliana, Quercus congesta y Quercus pubescens que se distribuyen por el sur Italia, Sicilia y el litoral adriático-balcánico.*

*Son bosques de baja y media altura, con dos o tres estratos. El estrato arbóreo superior está dominado por Quercus virgiliana y Quercus congesta y el estrato inferior por Quercus pubescens, Fraxinus ornus y Carpinus orientalis.*

*Dando lugar a una clara dominancia mono-específica o a formaciones mixtas.*

*En el estrato arbustivo son frecuentes especies de amplia distribución y de distribución más restringida, junto a algunas especies mediterráneas siempreverdes. El estrato herbáceo es rico en especies termófilas de amplia distribución, albergando también especies biogeográficamente diferenciales y algunas especies mesófilas. Es destacable el papel y la personalidad que confieren a este tipo de bosques las lianas y trepadoras.*

353	<i>Quercus virgiliana</i>	Haritza kandugabe	Roble albar
341	<i>Quercus congesta</i>	Erkametz italiarra	Roble italiano
72	<i>Carpinus orientalis</i>	Ekialdeko xarma	Carpe oriental
182	<i>Fraxinus ornus</i>	Lizar loreduna	Fresno florido
267	<i>Ostrya carpinifolia</i>	Xarma lupulukara	Carpe negro
14	<i>Acer obtusatum</i>	Astigar italiarra	Arce italiano
335	<i>Pyrus spinosa</i>	Udareondo arantzatsua	Pero mardolino
130	<i>Cytisus villosus</i>	Isats beltza	Rubiana peluda
260	<i>Mespilus germanica</i>	Mizpirondoa	Níspero
324	<i>Prunus spinosa</i>	Elorri beltza	Endrino
304	<i>Pistacia lentiscus</i>	Legeltxorra	Lentisco
360	<i>Rhamnus alaternus</i>	Txorbeltza	Aladierno
33	<i>Arbutus unedo</i>	Gurbitza	Madroño
75	<i>Celtis tournefortii</i>	Ekialdeko almeza	Almez de oriente
64	<i>Calicotome infesta</i>	Argelaga	Gatosa negra
416	<i>Rubus ulmifolius</i>	Arantza	Zarzamora
246	<i>Lonicera caprifolium</i>	Olibondoa	Acebucho
248	<i>Lonicera etrusca</i>	Atxaparra	Madreselva
400	<i>Rosa sempervirens</i>	Arkakaratsa	Rosa mosqueta
98	<i>Clematis vitalba</i>	Ezker ahiena	Clemátide
97	<i>Clematis flammula</i>	Mendi-jasmina	Flámula
483	<i>Tamus communis</i>	Apomahatsa	Nuez negra
37	<i>Asparagus acutifolius</i>	Basaesparragoa	Esparraguera silvestre
468	<i>Spiraea decumbens</i>	Espirea etzana	Espirea
455	<i>Sorbus aria</i>	Hostazuria	Mostajo
171	<i>Euonymus verrucosa</i>	Garatxo-basaerramua	Bonetero
182	<i>Fraxinus ornus</i>	Lizar loreduna	Fresno florido
13	<i>Acer monspessulanum</i>	Eihar frantsesa	Arce de Montpellier
104	<i>Cornus mas</i>	Zuhandor arra	Cornejo macho
11	<i>Acer hyrcanum subsp. intermedium</i>	Astigar balkaniarra	Arce de los Balcanes
338	<i>Quercus cerris</i>	Haritz turkiarra	Roble turco